



Erretiro-txanda kontratua:

Hego Euskal Herriko administrazioek langileak jubilatuta gabe jarraitzen dute eta egoera konpondu gabe

EAEko eta Nafarroako Gobernuak langile askorentzat garrantzia handia duen aurre-erretiroaren gaiari ez diote behar bezala heltzen, eta arazoa gainetik astintzearren, Madrilen negoziatia dadin defendatzen ari dira

Madrilgo dekretuaren arabera errelebia hartzeko baldintzetako bat langile hautagaiak behin-behineko kontratua edukitzea da, errelebo kontratuaren bidez zuzenean kontratu finkora pasatuko litzatekeelarik. Honek talka egiten du sektore publikoan lan egiteko ezinbestekoak diren eta LABek defendatzen dituen berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioekin. Hala ere, dekretuak berak kontratu mota hauek egin ahal izateko berariazko lanpostu deialdi publiko berezituak egiteko aukera zabaltzen du.

Alta, Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuak, aurre-erretiroa hartzeko soluziobideak proposatu ordez, aurre-erretiro txandaren baldintzak Madrilen ari dira negoziatzen; hau da, jubilatzen den langilearen baldintzak eta errelebia hartzen duen langilearenak. Gero, Gasteizko eta Iruñeko negoziazio mahaietara informazio hutsa eramaten dutelarik., Euskal Herriko langileoi Madrilgo neurriak inposatu egiten dizkigute, Madrilgo sindikatuen babesarekin.

Nafarroako Gobernuarekin martxan dagoen negoziazioan dekretuak ahalbidetzen duen eta funtzio publikora sartzeko ezinbestekoak diren berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak errespetatzen dituen deialdi publiko berezitua proposatzen dugu

EAEan, berriz, bereziki salagarria da Jaurlaritzaren jokabidea, izan ere, urte ugari dira dagoeneko erretiro-txandari loturiko akordio bat dagoela Mahai Orokorrean, eta azken urteetan horren murrizketa bat inposatzen egon da, behin-behineko langileak baztertuz langile finkoei bakarrik aplikatu dielarik neurria. Orain arteko neurri hori murrizta dela salatu du LABek hainbatetan, sektore publikoko behin-behineko langileak, funtzionarioak eta estatutarioak bazter uzten dituelako, eta soilik sindikatuen gutxiengoaren babesarekin. Kontuan eduki behar da Jaurlaritzaren dekretuek Mahai Orokorraren eraginpean dauden EAEko administrazio publikoez gain enpresa publikoei eta udal eta foru administrazioei ere eragiten diela.

LABentzat larria da Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren jokabidea, eta erantzukizunez jardun eta berehalako konponbide bat negoziatzea exijitzen diegu. Madrilen negoziatu eta adostu behar dutena ez da hango neurriak hemen nola inposatu negoziatzea, baizik eta langile publikoen lan baldintzak negoziatzeko eskumenak Euskal Herrira ekartzea eta neurriak hemen adostu eta erabakitzea. Kalitateko zerbitzu publikoak edukitzeko langileriak gaztetzea eta enplegua sortzea ezinbestekoa da.

LABek argi du borondate politiko kontua dela, horregatik, berehalako neurriak ezartzeko adostasunak proposatzen jarraituko du Euskal Herriko mahai negoziatzaileetan. Konponbidea ez da zaila: berariazko prozesuak martxan jartzea; hau da, Enplegu Publikoaren Eskaintza bereziak adostea ordezko edo errelebitan bakante horiek funtzio publikoan sartzeko printzipioak errespetaturik bete daitezela.

